



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

ESP.KODEA 2025SUBV0001 COD.EXP.	
EXPEDIENTEA EXPEDIENTE	DIRU-LAGUNTZA
TITULARRA TITULAR	ASOC HOGAR DEL JUBILADO PLAZA ONDO
NAN DNI	G20646055

**AZKOITIKO UDALAREN ETA PLAZA ONDO ERRETIRATUEN
ELKARTEAREN ARTEKO HITZARMENA**

BILDU DIRA

Alde batetik, Ana Maria Azkoitia Urteaga, Azkoitiko Alkatea eta P-2001800-H I.F.K. zenbakia duen Azkoitiko Udalaren izenean.

Bestetik, Maria Pilar Zarraga Azpiri, 72161953M, IFK G20646055 duen Plaza Ondo Erretiratuen elkartearen izenean eta haren ordezkaritzan, helbidea kale nagusia, 60 zk. 2.solairua (20720) Azkoitia duena.

Bi alderdiek elkarri aitortu diote hitzarmen hau izenpetzeko gaitasun osoa dutela, eta Plaza Ondo Erretiratuen elkarte eta bere ordezkariaren kasuan, Administrazio Publikoarekin hitzarmenak izenpetzeko inolako bateraezintasun edo ezgaitasun arrazoietan sartuta ez daudela adierazi ondoren, agertutakoek honako hau

ADIERAZI DUTE

I.-Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 22.2 artikuluan xedatzen du Toki Administrazioako aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak zuzenean eman ahalko direla, betiere, diru-laguntza arautzen duen hitzarmenean eta diru-laguntzak arautzen dituen araudian jasotako baldintzetan.

Lege bereko 28. artikulua diru-laguntzak zuzenean emateko prozedura arautzen du, zehaztuz, hitzarmenak direla Toki Administrazioek aurreikusitako diru-laguntza izendunak bideratzeko ohiko tresnak. Hitzarmenek, legean xedatutakoa betez, aplikagarriak diren baldintzak eta konpromisoak jasoko dituzte.

Uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuko 65. artikulua arabera aurrekontuetan aurreikusitako diru-laguntza izendunak izango dira, xedea, aurrekontu-zuzkidura eta onuraduna aurrekontuaren gastuen egoera-orrian berariaz zehaztuta dituztenak. Gainera, diru-laguntza horiek emateko prozedura ofizioz hasi daiteke edo eskatuta eta diru-laguntza arautzeko oinarri izaera izango duen hitzarmenarekin amaituko da.

II.-Plaza Ondo Jubilatuen Elkartea irabazteko asmorik gabeko elkarte da, 1988ko azaroaren 2an sortua eta Euskal Autonomia Erkidegoko Elkartearen Erregistro Orokorrean AS/G/07676/1998 zenbakiaren inskribatuta dago.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

III.-Plaza Ondo Erretiratuen elkarteak, Azkoitiko erretiratu eta pentsionistei hainbat ekintza desberdin eskaintzen dizkie. Herriko erretiratu eta pentsionisten bizi-baldintzak hobetzeko xedearekin lan egiten dute, bereziki, herritarrei bermatuz hezkuntza, aisialdi eta bestelako ekintzak. Besteak beste, honako ekintzak bermatu behar dituzte:

- 90 urte betetzen dituzten azkoitiarrak omentzeko ekitaldia.
- Urtean zehar egiten dituzten irteerak eta 2 bidai antolatzea.
- Ikastaroak: Dantza, Yoga, Makrame, Margolaritza, Gurutze Puntua...
- Zerbitzuak: podologia eta ile-apaintzailea.
- Erretiratuen astea antolatzea.
- Bingoa eta karta jokoak.
- Elkarteko lokalaren gainbegiraketa, zaintza eta mantenua.
- Beste batzuk: Ibilaldiak, Koroa...

IV.-Lankidetzak hitzarmen hau egiteko orduan, kontuan hartu dira Plaza Ondo Erretiratuen elkarteak jendartean duen eragina, zenbat azkoitiarrak parte hartzen duten taldean, elkartearen finkatze maila, ematen den zerbitzua, izandako ibilbidea, jarraitasuna eta egonkortasuna.

V.-Diru-laguntza hau ematen da interes publiko eta sozialeko helburuak betetzeko. Zehazki, Plaza Ondo Erretiratuen elkarteak 2025. urterako prestatu dituen ekintzak eta Erretiratuen etxearen mantenua finantzatzeko erabiliko da. Horrez gain, azkeneko urteetan ekintza berriak aurrera eramanez 2025. urtean berriak egiten jarraitu eta egokitzea bideratuta egongo dira. Hori horrela, Udalak onartutako diru-laguntzan 35.000€koa da.

Azken urteetan ordainketa bi alditan egingo da: lehen ordainketa hitzarmena sinatzerakoan, diru-laguntzaren %75; eta, kopuru hori justifikatzen zenean, bigarren zati osoa, %25. Azken urteetan Udalak emandako kopuru guztia modu egokian bideratu izan du, eta ez du superabitik izan. Urte amaieran, bigarren zatia ordaintzeko beti larri ibili da bai elkarteak bai Udalak; eta, hortaz, 2025. urtean ordainketa bakarra egitea proposatu da.

VI.-Hitzarmen hau sinatzen da Azkoitiko Udalaren eskumenen egikaritzan, hain zuzen, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 17.13 artikulua xedatutakoaren arabera.

VII.-Hitzarmen honen helburua Azkoitiko Udaleko aurrekontuan (indarrean dagoena) aurreikusitako diru-laguntza erakunde onuradunaren alde bideratzea da eta erakunde onuradunak bere gain hartuko dituen baldintzak nahiz konpromisoak finkatzea.

Beraz, diru-laguntzen Lege Orokorrean eta aplikagarria den gainerako araudian ezarritakoa betez, bi aldeek hitzarmen hau izenpetzeko erabakia hartu dute, ondorengo baldintza edo xedapenen arabera:

XEDAPENAK

LEHENENA: Hitzarmen honen xedea da Azkoitiko Udalak 2025. ekitaldiko aurrekontuan aurreikusitako diru-laguntza Plaza Ondo Erretiratuen elkarteari ematea eta emate



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

horren baldintzak arautzea, Plaza Ondo Erretiratuen elkarteak aurkeztu duen programa/proiektua aurrera eramanean dezan: 2025. urterako prestatu dituen ekintzak eta erretiratuen etxearen mantenua hain zuzen ere. Ondorioz, aipatutako programa/proiektuak sortutako gastuei aurre egiteko bakarrik erabili daiteke dirulaguntza.

BIGARRENA: Azkoitiko Udalak, Plaza Ondo erretiratuen elkarteari lehenengo xedapenean zehaztutako programa/proiektua aurrera eramateko 2025. urterako 35.000 euroko dirulaguntza emango zaio 2025eko udal aurrekontuko partida honetatik 1.4000.481.230.00.16. Ordainketa bakarra egingo da.

Horretarako, Plaza Ondo Erretiratuen elkarteak dokumentazioa hau aurkeztuta izan behar du:

- 2025eko programa eta jardueren proiektua.
- 2025eko gastuen eta sarreraren aurrekontu zehaztua.
- Gainerako finantza iturriei buruzko zehaztapen idatzia edota beste finantza iturririk ez duen ziurtagiria.
- Aurkeztutako programa/jardueren proiektuaren arabera, Plaza Ondo Erretiratuen elkarteak honako ekintzak antolatu/aurrera eramango ditu:
 - 90 urte betetzen dituzten azkoitiarrak omentzeko ekitaldia.
 - Urtean zehar egiten dituzten irteerak eta 2 bidai antolatzea.
 - Ikastaroak: Dantza, Yoga, Makrame, Margolaritza, Gurutze Puntua...
 - Zerbitzuak: podologia eta ile-apaintzailea.
 - Erretiratuen astea antolatzea.
 - Bingoa eta karta jokoak.
 - Elkarteko lokalaren gainbegiraketa, zaintza eta mantenua.
 - Beste batzuk: Ibilaldiak, Koroa...

HIRUGARRENA:

- a) Aurkeztu den programa/proiektuaren baitan egiten diren ekitaldi guztietan adierazi beharko da Azkoitiko Udalak diruz lagundu duela. Era berean, argitaratu daitezkeen publizitateetan, agerian utzi beharko da Azkoitiko Udalak laguntza eman duela, "Azkoitiko Udalaren laguntzarekin" esaldia txertatuz Udalaren Logoarekin batera.
- a) Ekitaldi edo jardueraren berri eman beharko zaio Gizarte Ongizate Sailari hilabete lehenago (eguna, ordutegia, lekua, informazioa...).
- b) Iragarkiak, ohar eta jakinarazpenak, bai ahozkoa eta bai idatzizkoa, ahal den guztietan, euskara hutsean egingo dira. Bi hizkuntzetan egiten badira, lehentasuna emango zaio euskarari.
- c) Ezingo da sexu edo arraza arrazoiengatik diskriminaziorik egin eta une oro errespetatu beharko da emakume eta gizonezkoen arteko aukera-berdintasun printzipioa.

LAUGARRENA: Plaza Ondo Elkarateak ziurtatzen du, Dirulaguntzen onuradun izateko azaroaren 17ko Dirulaguntzen 38/2003 Lege Orokorrak 13. artikuluan eta Azkoitiko



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

Udaleko Dirulaguntzen Oinarri Orokorretan (GAO, 54 zk, 2023ko martxoaren 20a) Zehazten diren baldintza guztiak betetzen dituela.

Hala ere, Azkoitiko Udalak egiaztatu egingo ditu datu bitartekaritzako plataformako zerbitzuetatik ondorengo baldintzak:

1. Gipuzkoako Foru Aldundia eta foru-ogasunak:
— Zerga-betebeharrak egunean izatearen kontsulta.
2. Gizarte Segurantzako Diruzaintza Orokorra:
— Gizarte Segurantzako betebeharrak egunean dituenaren kontsulta.

Gainera, Azkoitiko udalak egiaztatuko du, udalarekin zerga betebeharrak egunean dituela.

BOSGARRENA: Diruz laguntzeko gastutzat joko dira diruz lagundutako ekintzaren edo proiektuaren izaerari erantzuteaz gain, diru-laguntzak arautzeko oinarriek ezarritako epean egiten direnak. Gastu bat diruz laguntzeko, Diru-laguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorren 31. artikuluan xedatutakoa bete behar da, baita azpikontratatzeko 29. artikuluan eskatutako baldintzak ere.

4.1.- Diruz lagundu daitezkeen gastu kontzeptuei dagokienez, gastu mota batzuetarako ondorengo mugak ezartzen dira:

4.1.1.- Ez dira onartuko gastuen oharrak eta beste dokumentu batzuk, ez badituzte betetzen legezko faktura edo egiaztagiri kontsideratzeko baldintzak.

Salbuespen izaeraz, zerbitzuak edo lanak egiten badituzte, noizbehinka, faktura egiteko egoeran ez dauden pertsona batzuek, baina legez eskatu dakizkien baldintzak beteta, fakturaren ordezkari onartuko da hartzaileak jaso izanaren agiri bat aurkeztea, zeinetan jasoko diren izen-abizenak, nortasun agiria (NA) eta kontzeptua. Onuradunaren gastu guztiak kontuan hartuta, ezin izango dute gaintu diru-laguntzaren %30aren kopurua. Jaso izanaren agiri bakoitzaren zenbatekoa ezingo da izan 800€ baino handiagoa eta zenbatekoa 300€tik gorakoa denean, derrigorrezkoa izango da jasotzailearen banketxe kontuan ordainketa egin izana ziurtatzen duen agiria aurkeztea.

Jaso izanaren agiria sinatu duenari Ogasunak erreklamazioen bat jarriko balioke, ezin izango zaio inolako erantzukizunik eratorri Azkoitiko Udalari; izan ere, Azkoitiko Udalak gastua egin eta ordaindu dela egiaztatu besterik ez du egingo, emandako diru-laguntza justifikatzeko bitarteko gisa.

4.1.2.- Bazkari, afari, hotel edo ostalaritzako zerbitzuen kostuak, kilometraje gastuak, ibilgailuentzako erregai gastuak, telefonia zerbitzuetako gastuak edo antzekoak modu nabarian (eta egoki justifikatuta) aurretik identifikatuak izan behar dira aurkeztutako proiektuan. Edonola ere, behar den proportzionaltasuna gorde beharko dute egindako gastuaren artean eta lortu nahi duten helburuaren artean, zenbatekoa izan gabe entitatearen gastu guztien % 25 baino handiagoa.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

4.1.3.- Salbuespen izaeraz, justifikatzen zailak diren gastuak onartuko dira, zeinak ez duen beharko agiriz justifikatzea, eta kasu batean ere ez da izango onuradunaren gastu guztien %10 baino handiagoa.

2025eko abenduaren 31n amaituko da dirulaguntza erabiltzeko edo jarduerak egiteko epea. Aldiz, diru-laguntza emateko helburua bete duela zurriz eta jasotako diru-laguntza zertan erabili den justifikatzeko epea 2026ko otsailaren 28an amaituko da.

Justifikatzeko modua KONTU ERRAZTU bidez egingo da eta honako dokumentuak izango ditu:

- a) Justifikazio-kontuaren adierazpena Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- b) Jarduera memoria bat, diru-laguntza ematerakoan jarritako baldintzak bete egin direla justifikatzen duena eta egindako jarduerak eta lortutako emaitzak adierazten dituen.
- c) Jarduerak izan dituen gastuen eta sarreraren zerrenda sailkatua Azkoitiko Udaleko webgunean (www.azkoitia.eus) eskura dagoen ereduaren arabera diruzainak sinatua.
- d) Gastua justifikatzeko balio duten faktura, ordainagiri edo trafiko juridikoan frogatutako balioa duten beste agiriak onuradunak gorde beharko ditu eta Gizarte Ongizate Sailak diru-laguntza egoki aplikatu ote den egiaztatuko du horren gaineko arrazoizko ziurtasuna ematen duen ordainagirien lagin bat begiratu. Hautaketa ausazkoa izango da eta onuraduna behartuta egongo da hautatu diren agiri original horiek aurkeztera.
- e) Jaso-izanaren egiaztagiria begiratu dira, 300 €tik gorakoak direnak eta PFGZren atxikipena egin al den egiaztatuko da. Gainera, Igorle beraren Jaso-izanaren egiaztagiri aztertuko dira eta PFGZren atxikipena al duten egiaztatuko da, beti ere igorlearen kopuru metatua 300 €tik gorakoa bada.

Justifikatzeko obligazioa ez betetzeak nahiz behar bezala ez justifikatzeak jasotako kopuruak eta dagozkien interesak itzuli beharra ekar lezake berekin, Diru-laguntzei buruzko Lege Orokorraren 37.1 artikuluan xedatutakoaren ildotik.

SEIGARRENA: Dirulaguntza hau jaso ahal izateko aurreko ekitaldiko diru-laguntza zurriz izan behar du. Likidazioan ezingo da superabita eduki eta horrela suertatu ezker, gehienez jasotako kopurua itzuliko dio Azkoitiko Udalari.

ZAZPIGARRENA: Udalaren laguntza bateragarria izango da gainerako erakunde publiko edo pribatuek xede bererako eman ditzaketenen bestelako diru-laguntzekin, eta Plaza Ondo Erretiratuen elkartearen gainontzeko sarrerekin, beti ere udalari informatuta. Edonola ere, ezingo da gain-finantzaketarik izan, eta egora hori gertatzen bada, diru-laguntza murriztuko zaio Plaza Ondo Erretiratuen elkarteari.

ZORTZIGARRENA: Azkoitiko Udala ez da arduratuko Plaza Ondo Erretiratuen elkartearen lanean ari diren langileez eta Plaza Ondo Erretiratuen elkartearen izango da langileekiko lan-harremanaren ondorioz sortutako lege alorreko betebeharren erantzule bakarra. Lan alorreko legeri babesleak bere alderdi guztietan ezarritakoa bete behar du Plaza Ondo Erretiratuen elkartearen.



AZKOITIKO UDALA
AYUNTAMIENTO DE AZKOITIA

BEDERATZIGARRENA: Hitzarmen hau izenpetzean, sinatzen duenak adierazten du bertan ezarritako betekizun guztiak betetzen dituela eta hemen jasotako baldintza eta betebeharrak guztiak onartzen dituela.

Era berean, izenpetzen duenak adierazten du Azkoitiko Udalari eman dizkion Datu Pertsonalak onespenez eman dizkiola eta datu horiek Azkoitiko Udalak baimendutako fitxategian sartzeko eta tratamendu automatizatua emateari baietza ematen diola.

Gainera, sinatzen duenak aitortzen du hitzarmen hau izenpetzeko eman duen informazioa egiazkoa dela eta ez duela isilean ezer gorde edo aldatu.

Hitzarmena sinatzen duenak baimena ematen dio Azkoitiko Udalari:

- a) Izaera pertsonaleko datu horiek udala kudeaketarako bakarrik erabiltzeko.
- a) Hitzarmen honen xede den dirulaguntza zuzen kudeatzeko garrantzizko den informazio guztia eskuratu ahal izateko beste Administrazio Publiko batzuen fitxategietan beharrezkoak diren kontsulta guztiak egiteko.

Hitzarmen hau izenpetzen duenak aitortzen du argibide guztiak eman zaizkiola berak eman dituen datuak izaera pertsonaleko datuen eta babes digitaleko 3/2018 lege organikoak ezarritako moduan eskuratzeko, zuzentzeko edo ezabatzeko aukeraren inguruan.

HAMARGARRENA: Hitzarmen honetan aurreikusita ez dagoen guztian, betetzekoak izango dira Estatuak diru-laguntzetarako 2003ko azaroan 17an eman zuen 38/2003 Lege Orokorra, eta uztailaren 21eko 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartu zen Diru-laguntzei buruzko Erregelamendu Orokorra eta kasuari aplikagarria den gainontzeko araudia.

HAMAIKAGARRENA: Administrazioako auzitegiatarako jurisdikzioaren menpe geratuko dira hitzarmen honetatik sortzen diren auziak. Nolanahi ere, bitartekaritza edo arbitrajez konpondu daitezke, indarrean dagoen legedian zehaztutakoarekin bat etorritik.

Hitzarmen honetako klausulak ez betetzea haren deuseztapena ekar lezake eta elkarteak diru-laguntza kontura jasotakoa itzultzera behartuta egongo da, laugarren klausulan zehaztutako eran.

Eta horrela jasota gera dadin, dokumentu honetako edukiarekin adostasuna azalduz eta leial betetzeko konpromisoa hartuta, bi aldeek hirukoiztuta sinatzen dute.

Ana Maria Azkoitia Urteaga
Azkoitiko Alkatea

Maria Pilar Zarraga Azpiri
Plaza Ondo Erretiratuen
elkarteko lehendakaria

GIZARTE ONGIZATE SAILA – Tel . 943 857174 / Fax. 943 852140 – gizar@azkoitia.eus
AZKOITIKO UDALA – HERRIKO ENPARANTZA Z/G – 20720 AZKOITIA



EKS | CSV: ESKU4056e017-e339-4cb7-a00d-987b4e4404ec

Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=01710>

Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025SUBV0001-Hitzarmena/Convenio (ASOC HOGAR DEL JUBILADO PLAZA